

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2416

443/2021 EBAZPENA, apirilaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen den txanda irekiko eranskinean sartuta dauden esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzeko prozesua, Dokumentazio Sanitarioko Teknikari Espezialista kategorian, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA 28. zk.).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 134/2018 Ebazpenaren bitartez, Teknikari Espezialista Sanitarioen lanbide-taldeko Dokumentazio Sanitarioko Teknikari Espezialista kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobak deitu ziren, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik (2018ko otsailaren 15eko EHAA 33. zk.).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 11ko 439/2020 Ebazpenaren bidez, Osakidetzaren webgunean argitaratzeko agintzen da oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Teknikari Espezialista Sanitarioen lanbide-taldeko Dokumentazio Sanitarioko Teknikari Espezialista kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobei dagokien puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izango dute destinoa.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Dokumentazio Sanitarioko Teknikari Espezialista kategorian izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen lege-riak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Teknikari Espezialista Sanitarioen lanbide-taldeko Dokumentazio Sanitarioko Teknikari Espezialista kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusian (Egoitza Zentralean) hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar

Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetakoz nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko deklarazio bat edo hitzmate bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzmatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzmatea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetzan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatu-tupeko pertsonal gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginbideak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuaren barruan esleitu zaien erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2021eko apirilaren 29a, osteguna

ERANSKINA

2016-2017KO OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

DESTINOEN ESLEIPENA

KATEGORIA: OSASUN-DOKUMENTAZIOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

TXANDA: IREKIA

NAN / AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Derrigorrezko data	
***6460**	Ortega Martin, Javier	Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***7715**	Arabaolaza Amezua, Ainara	Donostialdeako ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***7371**	Martin Macho, Cristina	Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***2679**	Renteria Aguirre, Nagore	Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***2934**	Martinez Barrio, Marta	Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***3850**	Adela Fernandez, Maria Victoria	Bidasoako ESla, Bidasoako Ospitalea	2HE	
***4657**	Esquisabel Goicoechea, Ainara	Donostialdeako ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***3220**	Vazquez Garcia, Rosa Maria	Donostialdeako ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***9627**	Imaz Barandiaran, Maria Concepcion	Arabako ESla, Arabako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***4314**	Zubiaur Bilbao, Maria Teresa	Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***6208**	Andres Muñoz, Juan Carlos	Uribeko ESla, Urdulizko Ospitalea	2HE	
***7197**	Sanroma Marquez, Inmaculada	Donostialdeako ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	
***1718**	Izquierdo Diez, Monica	Donostialdeako ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea	2HE	